

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Bazterketa arriskuan dauden pertsonen prestakuntza sustatzeko dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarriak

Udalbatzak 2025eko maiatzaren 21ean egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Legutioko udalerriko gizarte zerbitzuetan gizarteratzeko ibilbideetan dauden eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonentzako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzen oinarriak onartu dira. Testu osoa argitaratu da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete ebazpen honen aurka, zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, horren aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkatetza honen aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere den, egoki irizten den beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Legutio, 2025eko ekainaren 30a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTAZAR

LEGUTIOKO UDALAREN GIZARTE ZERBITZUETAN GIZARTERATZEKO IBILBIDEAN DAUDEN ETA GIZARTE BAZTERKERIAN EDO HORREN ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN PRESTAKUNTZA SUSTATZEKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

ZIOEN AZALPENA

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 14. artikulua ezartzen duenez, pertsona orok dauka hezkuntzarako eta lanbide heziketarako eta etengabeko prestakuntzarako eskubidea.

Hala berean, 1996ko Europako Gutun Sozial berrikusiak, 2021eko uztailaren 1ean indarrean hasi zenak, 10. artikuluan ezartzen du lanbide heziketarako eskubidea. Eskubide horren erabilera eraginkorra sendotzeko, alderdiek 10.5 artikuluan honako konpromiso hau hartzen dute: aurreikusitako zerbitzuen erabilera osoa bultzatzea, neurri egokien bidez, hala nola:

- a) a) Eskubide eta kargen ordainketa murriztea edo kentzea.
- b) b) Bidezkoa den kasuetan, finantza laguntza ematea.

Illo beretik, Europako Batzordearen 2017ko apirilaren 26ko 2017/761 (EB) Gomendioak, gizarteratzeko eskubideen europar zutabeari buruzkoak, ezartzen du, gizarte babesaren Europako ereduari buruzko beste alderdi batzuen artean, pertsona orok duela hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusibo eta kalitatezkoa izateko eskubidea, gizarterean erabat parte hartzeko eta laneratzea arrakastaz kudeatzeko aukera ematen dieten gaitasunak eduki eta eskuratzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) artikulua udalerriari esleitzen dizkie gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko eskumenak; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 eta 17.25 artikuluek, berriz, udalerriari esleitzen dizkiete gizarte-zerbitzuak antolatze, planifikatzeko eta kudeatzeko eskumenak, bai eta ekonomia eta gizarte garapena kudeatzea ere, autonomia plangintzaren esparruan.

Oinarri hauen xedea da hiri barruko eta hiriarteko garraioaren ziozko gastuak ordaintzea, eta laguntzak ematea udaleko gizarte-zerbitzuetan egoera jakin batean dauden pertsona guztiei, betiere publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraiki.

1. artikulua. Laguntzaren xedea

Oinarri hauen bidez, laguntzak zuzeneko emakidaren bidez emateko prozedura arautu nahi da, bidaia-errepideko garraio publiko erregularreko eta erabilera orokorreko zerbitzuen bidez onuradunen joan-etorrien gastuetan laguntzeko.

2. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Abian den urte osoan egongo da zabalik, eta prestakuntza hasi aurretik edo ematen ari den bitartean eskatu ahal izango da.

3. artikulua. Onuradunak

Onokoek eskatu ahalko dituzte laguntza hauek:

- Legutition erroldatuta dagoen eta benetan bizi den edozein pertsona, 6 hilabetetik gorako antzintasuna izanik, 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa bada.
- Gizarteratzeko prozesu batean egon behar du Legutioko Udaleko gizarte zerbitzuan.
- Gizarte-bazterkeriako hasierako gizarte diagnostiko bat izan behar du, bazterkeria arriskuan edo gizarte bazterketa arinean, moderatuan edo larrian dagoela zehazten duena, gizarte bazterkeria baloratzeko tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren arabera.
- Prestakuntza arautuko edo ez arautuko araubide presentzialeko irakaskuntzetan matrikulatuta egon behar du, deialdia egiten den unean indarrean dagoen ikasturtean.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. paragrafoa arautzen duenari jarraikiz, onuradun izatea debekatzen duten egoeretako batean ere ez du egon behar, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren arabera sexu bereizkeriatik gertatutakoak berariaz aipatuta, eta Legutioko Udalarekin zorrik edo zerga zehapenik ez izatea.

4. artikulua. Prestakuntza emateko lekua

Laguntza emango da jatorria edo helmuga Arabako Lurralde Historikoan duten joan-etorrietan. Horretarako, hobaria emango da erabiltzaileek Legutio barruko edo kanpoko zentroetara joateko eskuratzen duten garraio txartelaren edo tituluaren prezioan, baldin eta prestakuntza arautua edo arautu gabea sustatzen badute gizarte bazterkeriako arriskuan edo arriskuan dauden pertsonen kolektiboaren barruan, eta Legutioko Udaleko gizarte zerbitzuetan gizarteratzeko ibilbidean badaude.

5. artikulua. Dirulaguntza emateko hasiera eta prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabeko lehia publikoko araubidean izapidetuko da, eta publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokituko da. Horren laburpena ALHAOn argitaratuko da, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez, eta, horrela, prozedura hasiko da.

Udalaren osoko bilkurak onartuko du deialdia, eta deitutako dirulaguntzak emateko prozedura garatuko du. Ofizioz hasiko da beti, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta nahitaez eduki hau izango du:

- Aurrekontu ekitaldi bakoitzean dirulaguntzak egotzen zaizkion aurrekontu aplikazioa, gehieneko zenbatekoa eta, hala badagokio, modalitateen edo tipologiaren arabera banaketa, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

- Eskabide eredu eta aurkeztu beharreko agiri osagarriak. Administrazioak beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio guztia bilduko du bere artxibo eta aurretiazko espedienteetatik. Era berean, egin badaiteke, eta interesdunek alde aurretik baimena ematen badute, organo kudeatzaileak alde aurretik ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, administrazio eskudunekin informazioa trukaturik. Bildutako informazioa espedientea izapidetzeko behar-beharrezkoak diren datuetara mugatuko da.

- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

- Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42., 43., 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Oinarri hauetan xedatu ez den guztirako, prozedurak udal honetako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorrean ezarritako izapideak beteko ditu, eta administrazio-bidea amaituko du organo eskudunaren ebazpenak. Dirulaguntza hauek emateari lotutako komunikazio, argitalpen eta jakinarazpen guztiak udal egoitza elektronikoen ediktu taulan argitaratutako iragarkiaren bidez egingo dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri hauen argitalpena eta dagozkien urteko deialdien laburpenak izan ezik, horiek ALHAOn argitaratuko baitira.

- Aurrekoa gorabehera, izapidearen izaerak hala eskatzen duenean, komunikazioa posta elektronikoz egin ahalko da, interesdunak eskabidean adierazten duen helbidea erabiliz.

6. artikulua. Prozeduraren instrukzioa

Eskaerak aurkeztu ahala, Legutioko Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikari arduradunak onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen diren aztertu eta egiaztatuko du, eta, hala badagokio, zuzentzeko eskatuko du iragarki bidez. Halaber, interesdunei jakinaraziko die hamar egun balioduneko epean errekerimenduari erantzuten ez badio, atzera egindakotzat hartu eta eskaera artxibatu egingo dela.

Ondoren, alkatetzaren ondoz ondoko dekretuak emango dira, eta udaleko iragarki taulan argitaratuko dira. Dekretu horietan, onartutako eta baztertutako eskabideen zerrendak jasoko dira, eta, baztertutakoen gero, baztertzeko arrazoia adieraziko da.

Jarraian, laguntza hauetarako deialdia egiten duen zinegotzi eskuordearen titularrari dago-kio prozeduraren instrukzioa egitea. Kide anitzeko organo batek lagunduko dio, eta organoak honako hauek izango ditu kide:

Presidentea: alkatea edo eskuordetza emandako zinegotzia.

Kideak: gizarte-zerbitzuen ardura duen arloko zinegotziaren titularra, alkateak presidentearen kargua eskuordetu badio izan ezik.

Legutioko Udaleko idazkari-kontu hartzailea, edo hark eskuordetza emandako funtzionarioa.

Instrukzio-organok, espedientea eta kide anitzeko organoak egiten dituen txostenak ikusi-rik, behin betiko ebazpen-proposamenak egingo ditu, eta, kasu horretan, ez da entzunaldiaren izapiderik izango, kontuan hartuta prozedura honetan ez dela beste egitaterik agertuko, ez eta beste alegazio edo frogarik ere, interesdunek aurkeztutakoak ez badira (Zerga Administrazio-ko Estatu Agentziak interesdunen berariazko baimenarekin emandako datuak barne).

Proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortzen onuradunen alde udalaren aurrean, dirulaguntza emateko ebazpena argitaratu arte. Hala ere, ordezkari arduradunek informazio egokia emango diete interesdunei.

7. artikulua. Ebazpena

Alkatetza izango da laguntza hauek ebazteko organo eskuduna. Ezin izango da inolako ebazpenik eman, harik eta espedientean aurrekontu izendapen nahikoa dagoela egiaztatzen den arte. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikulua ezarritakoaren arabera, alkatetzaren ebazpena arrazoitua izango da, eta hartutako ebazpenaren oinarriak eta onuradunek hartutako konpromisoak egiaztatu beharko dira.

Dagozkion betebeharrak alkatetzaren dekretu bidez aitortu eta likidatuko dira. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ez da 2 hilabetetik gorakoa izango, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori ebazpen legitimorik jakinarazi gabe amaitzen bada, dirulaguntza emateko eskaera ezetsi egingo da.

Prozeduraren ebazpena udalaren egoitza elektronikoaren ediktu taulan argitaratuko da, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa dagokion deialdian zehaztuko da.

Udalerriko hiri garraiorako laguntzak honako hauek izango dira:

MODALITATEA	PRESTAKUNTZA EMATEN DEN LEKUA	DIRUZ LAGUNDUTAKO ZENBATEKOA
A	Legutioko udalerri kanpo eta udal mugartetik at 2 kilometrotik gorako distantziara aurrez aurre emandako ikastaroa	Txartelaren kostua, BAT sistema edo garraio txartela erabiliz, ahal denean
B	Legutioko udalerriaren barruan aurrez aurre emandako ikastaroa	Txartelaren kostua, BAT sistema edo garraio txartela erabiliz, ahal denean

9. artikulua. Bidegabeki aberasteko debekua eta beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikuluan arautzen den bidegabeki aberasteko debekuaren printzipioaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarka, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Laguntza horiek bateragarriak izan daitezke beste erakunde batzuek helburu bera betetzeko ematen dituztenekin, baina, nolahi ere, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako gaindikina itzuli beharko da.

10. artikulua. Banaketa irizpideak

Baldintzak betetzen dituzten eskabideen kopuruak deialdian edo, hala badagokio, modalitate edo tipologia bakoitzeko finkatutako gehieneko kreditua gainditzea badakar, sarrera erregistroaren hurrenkera zorrotzari jarraituko zaio, zuzeneko emakida-prozedura bat baita. Hasierako eskaera zuzentzeko eskatzen bada, sarrera-erregistroaren hurrenkerak zuzenketa hori zuzen betetzen den data hartuko du kontuan.

11. artikulua. Ordaintzeko era eta justifikazioa

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30.7 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza hauek onuradunaren egoera jakin bati atxikita ematen direnez, laguntza jaso ahal izateko, dirulaguntza eman aurretik diruz laguntzeko moduko egoeran dagoela egiaztatu beharko da, oinarri hauetan eta dagokion deialdian ezarritako bideak erabiliz. Hori guztia egin behar da udalak egokitutako jotzen dituen egiaztapen eta kontrol neurriak ezertan eragotzi gabe.

Laguntzaren zenbatekoa emandako dirulaguntza osoaren ehuneko 100eko ordainketa bakarrean ordainduko da, onuradunak eskabidean adierazitako banku kontuan transferentzia eginez.

Ikastaroa amaitzean, ikastaroa amaitu eta 15 eguneko epean, gutxienez ehuneko 80ko bertaratze egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Ehuneko 80ko bertaratzerik izan ezean, jasotako zenbatekoa eskatuko zaio, prestakuntza ekintzari probetxurik atera ez zaiola ulertuko baita.

12. artikulua. Itzulketa

Legutioko Udalak laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen egiaztapen- eta kontrol neurri guztiak hartu ahal izango ditu.

Datuak ezkutatzuz gero, aurkeztutako dokumentazioa faltsutuz gero edo eskatutakoa bete gabe utziz gero, laguntza ukatuko da, edo, hala badagokio, laguntza itzuliko da, berandutze-interes eta guzti.

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta berandutze interesak eskatuko dira laguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diruzko sarreratzat hartuko dira.

Itzultzeko betebeharra, hala badagokio, lokabea izango da eskatu ahal diren zehapen edo zigorretatik.

Alkatetzari dagokio itzulketa erabakitzeko eskumena, eta itzultzeko prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan jasotako xedapenen arabera arautuko da.

13. artikulua. Ebazpenaren aldaketa

Dirulaguntza eman ondoren, laguntza eman duen organoak, interesdunak eskatuta, hura aldatzea erabaki ahalko du, 5. oinarrian ezarritako kide anitzeko organoaren txostena jaso ondoren, betiere dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo ingurubarrak aldatu badira.

14. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboen erantzule izango dira egitez edo ez-egitez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean arau-hauste gisa tipifikatutako kasuetan dauden onuradunak.

Oinarri honetan arau hausteei, zehapenei eta horien mailaketari buruz xedatu ez den gainerakoari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen IV. tituluan jasotakoa beteko da.

15. artikulua. Eskabideak

Legutioko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuan aurkeztuko dira, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Eskabidearen inprimakia (I. eranskinean jasotakoa), behar bezala beteta.
- Eskatzailearen NANaren, AIZaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Laguntza zein banku-kontutan ordainduko den.
- Prestakuntza-ikastaro batean matrikulatu izanaren ziurtagiria edo egiaztagiria.
- Ikastaroaren egutegia.
- Gizarte langilearen txostena, bazterkeriaren gizarte-diagnostikoaren hasierako balorazioaren emaitza jasotzen duena eta gizarteratze ibilbide batean parte hartzen ari dela jasotzen duena.

- Legutioko Udalarekin, administrazio publikoekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-zorrik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

- Erroldatze-datuak ofizioz egiaztatuko ditu Legutioko Udalak.

- Hainbat administraziori laguntzak eskatuz gero, jasotako diru sarreraren zenbatekoa aurkeztu beharko du interesdunak udal honetan.

Hala ere, eskaerarekin batera, baimena emango zaio Legutioko Udalari legez egokia den zergei edo ekonomiari buruzko informazioa eskatzeko.

16. artikulua. Laguntza galtzea

Onuradunek prestakuntza sustatzeko prestazioa galdu ahalko dute honako kasu hauetan:

— Biztanleen udal erroldan baja ematea.

— Ikasketei uztea edo, gutxienez, ehuneko 80ko asistentzia ez justifikatzea.

17. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Laguntza galtzea eragin dezakeen edozein aldaketa gertatzen denean, onuradunak horren berri eman beharko du berehala.

AZKEN XEDAPENA

Alkatetzari dagokio, bere ekimenez edo gizarte-ongizateko batzordearen proposamenez, deialdi honen ondorioz sor daitezkeen gorabehera guztiak ebaztea, eskuragarri dauden funtsen banaketa zuzena, arazoizkoa eta ordenatua bermatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartzea, eta pertsona interesdunen onurarako eskatutako laguntzen izapidetze eraginkor, zehatz eta komenigarria zehaztea.